# ALTZA

1.998ko Abendua * Altzako Herri Batasuna * Dohainik * 1.Urtea * 5.Zenbakia

# 18 Urte kartzelan




El 28 de enero se cumplen 18 años de la detención de Koldo, Tito y Fernando. En 1981 la Policia Nacional española entró en sus casas y bajo la acusación de pertenecer a ETA se los llevaron detenidos. Fueron torturados e ingresaron en prisión el 7 de febrero de 1981, condenados a 30 años de prisión.

En estos dieciocho años han pasado por diferentes cárceles, todas ellas lejos de Euskal Herria, y ya en 1996 se les debería haber aplicado la libertad condicional.

**Urtarrilaren 28an Koldo, Tito eta Fernandok 18 urte beteko dituzte espainiar estatuko gartzeletan**

Deberían pues, estar en la calle tras cumplir hace tres años las 3/4 partes de la condena. Koldo, Tito y Fernando, son presos políticos vascos que se encuentran secuestrados en manos del estado español.

Desde estas líneas exigimos su puesta en libertad, sin más dilaciones ni maniobras sucias. Y aprovechamos para enviarles un saludo revolucionario cargado de ánimo y agradecimiento, siendo su lucha ejemplar para nosotr@s.

**SAN MARKOS :USAI TXARRA**

**1999KO AURRE-KONTUAK**

**GAZTEENTZAT BONOBUSA ORAIN!**

**EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ ALTZAN**

# Editoriala

**Hay hombres que luchan un día y son buenos. Hay hombres que luchan un año y son muy buenos. Hay hombres que luchan muchos años y son mejores. Pero hay quienes luchan toda la vida; esos son los imprescindibles. Koldo, Tito y Fernando son de estos últimos. Su militancia y compromiso para con Euskal Herria y su libertad les llevó a militar en ETA y con 22, 24 y 26 años respectivamente fueron condenados a 30 años de cárcel. 18 años han pasado en las cárceles de exterminio españolas. Ahora tienen 40, 42 y 44 años respectivamente. Pero no se arrepienten. Su lucha fuera y dentro de prisión es ejemplar para nosotros/as: convicción, compromiso y coherencia. La lucha por la libertad de Euskal Herria merece la pena. Mención especial merecen sus familiares, que les han seguido por toda la geografía española desde que comenzó la dispersión. A Koldo, Tito y Fernando les queremos en casa, es su derecho. Ahora nos toca a nosotr@s, y sin duda nuestro mejor homenaje será la victoria.**

**Izan zirelako gara, garelako izango dira!**

**Altzako Herri Batasuna**

## gure oroimena, garaipena





Queremos dedicarte unas palabras, y es difícil juntarlas para expresar lo que sentimos. Tampoco queremos que sean de despedida, ni que se nos atraganten en la garganta. Sentimos tan profundamente que te vayas que no lo aceptamos del todo. Por eso te vamos a llevar con nosotros Txoko, a donde vayamos, hasta donde lleguemos. Te colocaremos en el recuerdo junto a todos los demás, y nos aprovecharemos de esa fuerza acumulada para seguir adelante hasta la victoria final. Fuiste un militante incondicional, hiciste de este pueblo tu pueblo con tu lucha y con tu sudor, desde la izquierda siempre, con el trabajador. Nos quedamos con tu ejemplo, con tu humor, con tus chistes camino a Herrera de la Mancha, tu sentido crítico y tu fuerza.

**Gure bihotzean betirako gordea zara.**

Txalakako zure lagunak

# Askatasunaren aldeko

# Borrokalariak

**Euskal Herriko askatasunaren aldeko borrokalariak dira Koldo, Tito eta Fernando inongo zalantzarik gabe. Beraien konpromezuak ETAn militatzera eraman zituen. Euskal Herriaren alde ekiteko era guztiak legitimoak zirela pentsatzen zuten. Herria maite zutelako horrelako urratsa eman zuten.**




Koldo 1981ko urtarrilaren 25ean atxilotu zuen Polizia Nazionalak goizeko ordu bietan bere etxean. Ordu batzuk beranduago Guardia Zibila ere bere bila joango zen. Hiru egun beranduago Tito eta Fernando. Fernando gaueko 12tan eta Tito goizeko 3retan, kasu bietan Polizia Nazionalak.

Hirurak torturatuak izan ziren, eta otsailaren 7an kartzeleratu zituzten. Beraiekin batera detentzio gehiago izan ziren. Altzan izugarrizko kolpea suposatu zuen.

Gartzelan borrokatzen jarraitu dute Preso politikoen Kolektiboarekin batera: gose grebak, txapeoak... Dispertsio hasi zenetik gartzela desberdinak ezagutu dituzte. Koldo: Carabanchel, Soria, Puerto de Santa María, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Sevilla II eta azkena Murcia (91eko ekainaren 29etik).

Titok ibilbide berdina, baina 1991ko irailaren 20tik Alicanten dago.

Eta azkenik Fernando: Carabanchel, Puerto de Santa María, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Sevilla II, Puerto I, Salto del Negro (1992ko irailaren 9tik 98ko abenduaren 22ra arte), azken destinoa Puerto I izanik.

1996an, kondenaren 3/4ak bete zituzten, eta espainiar legediaren arabera (90.Art), kalean egon beharko lukete duela hiru urte. Baina gobernu espainiarrak bahitu gisa erabiltzen ditu, beste 122 presoekin batera.

Euskal gizartea behin eta berriro posizionatu da euskal presoen eskubideen alde, espainiarrek beraien legedia bete dezaten.

Altzan ere 3 preso hauen askatasuna eta dispertsioaren bukaera aldarrikatu da.

**"El amor por Euskal Herria les llevó a militar en ETA. Por la libertad de este pueblo lucharon y siguen luchando"**

Gabonetan, zehazki abenduaren 27an, Altzako kaleetan zehar, "Lehen bait lehen" plataforma, HB, EA, IU, LAB, ELA, ESK eta Zutiken deialdi bateratua medio, manifestazio bat burutu genuen eskubide honen errespetoa exijituz.

Aipamen berezia merezi dute Altzako PSOE eta Altzako PNVk, ez baitute atxekitu nahi izan. PSOEko Alberto Rodriguezen kasuan, bere alderdiaren jarrera ikusirik, bere erantzuna espero zen. Ez, ordea, PNVko Martin

**"Alberto Rodriguez (PSOE) y Martin Elizasu (PNV) no quisieron apoyar la manifestación del 27"**

Elizasuren jarrera lotsagarria; are gehiago bere alderdiak azken hilabeteotan gai honetan izan duen aldaketa ikusita.

Eskubide hauen ukapena mantentzen den bitartean, hilabetero biltzeko erabakia hartu dugu.

Euskal gizartea mobilizatu da. Une itxaropentsu batean gaude, baina inolaz ere azken txanpan, Koldo, Tito eta Fernandok borrokatu eta borrokatzen jarraitzen dituzten arrazoiak hor mantentzen direlako.

**"Koldo,Tito y Fernando deberían estar en la calle desde 1996 habiendo cumplido las 3/4 partes de la condena."**

Euskal Herrian askatasunaren alde denok zerbait eman dezagun, gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten.

**Gora Euskal Preso politikoak!**
**Gora Euskal Herria Askatuta!**

## Iritzia

**Detenitu gintuzten egunean erresidentzian nengoen koinatarekin Monzon zaintzen. UVIn zegoen eta herriko jendearen artean turnoak egiten ziren. Han ginela Polizia Nazionala agertu eta eraman gintuzten. Egun horretan atxilotu gehiago izan ziren: Tito, Fernando, Rufi Etxeberria, Otxoa eta Eusebio. Madrilerako bidean entzun genuen Ryan, Lemoizko zentrala eraikitzen ari zena, bahitu egin zutela. Giroa oso tentsoa zegoen. Madrilen torturatuak izan ginen. Ni Carabancheletik pasa eta gero egunetara askatu ninduten. Eusebio hilabeteak eta Rufi urteak. Koldo, Tito eta Fernandok marroi guztia jan zuten. Torturaren testimonioak eraman genituen Donostiako plenora. Txus KonGil zen zinegotzia. Baina ez ziguten irakurtzen utzi. Une horretan Joseba Arregi Madrileko DGSen torturapean hil zutela jakin genuen, 1981eko otsailaren 13a zen. Imagina ezazue... plenoa guztiz apurtu genuen. Ni oraindik enfajatuta nengoen emandako oxtiengatik. Baina gogorragoa da zure lagunak barruan geratzea; eta noski, zuk bizitzen jarraitu behar duzu. 18 urte pasa dira, nahiz eta zuek barruan geratu eta niri bisitarako baimenik ez eman beti gogoan izango zaituztet. Zuek barrutik nik kanpotik gure ametsak lortzeko zuen beharra dugu, hemen, etxean.**

"Akerra"

# Donostiako udaletxeko aurrekontuen trenak Altzan geltokirik ez !!

Titular honekin aurrekontuek Altzan eduki dezaketen eragin eza islatu nahi dugu, holakoa baita PSE-PNV-EAk prestatutakoa. Dena den, HBk aurrekontu hauei hainbat zuzenketa aurkeztu dizkio eta horietako mordo bat Altzari dagozkio.

Aurrekontuak prestatzean oso garrantzitsua izaten da abiapuntua zein den, eta Donostiako Udal aurrekontuen abiapuntua hiri eredua izanen da, eta kasu honetan tripartitoak duen hiri-eredua, eta gurea arras desberdinak dira, HBk postaletan azaltzen ez den hiria kontutan hartzen baitu, parte hartzea bultzatzen du, gutxien dutenak defendatzen ditu...

Aurrekontu hauetan bi puntu berri besterik ez ditugu aurkituko: Jolastokietako frontoia (miloi bat) eta gazteria sailan Altzan eskuhartze integrala sustatzeko programa (10.4 miloi). Bi puntu hauetaz gain, diru partidak azaltzen dira ditugun ekipamenduen gastuei aurre egiteko: Casares, Herrerako frontoia, Altzako kiroldegia... Baita Lau Haizeta eta Altzako jantoki soziala ere. Hau kenduta, eta dauden gastu orokorrak alboratuta (zabor bilketa, ura, udaltzaingoa, zerbitzu orokorrak...) Altzarako ez dago besterik.

Hau guztiaren aurrean, HBk zuzenketa proposamenak aurkeztu ditu, batzuk prozedurazkoak eta besteak, berriz, edukin ekonomikoak dituztenak zein edukin ekonomiko gabeak. Hurrenez hurren hiru bloke horiek azalduko ditugu:

**1.) Prozedurazko proposamena**: Aurrekontuen eztabaida hastean, alderdi politiko, ezberdinei proiektua ematen zaien bezala, auzo elkarteei eta gainontzeko taldeei ere ematea, aurrekontu proiektua ikusi eta aportazioak egiteko epea emanez.

**2.) Edukin ekonomikoa duten proposamenak:**

* Larratxoko haurtzaindegia berriz zabaltzea (26 miloi)
* Altzako Auzo etxea (3 miloi)
* Arrobitxulon kirol eta aisirako gunea eraiki (5 miloi gehiago aurrekontuan azaltzen diren 20etara gehitzeko)
* Altzako estali gabeko igerilekua (100 miloi)
* Herrerako San Luis enparantzako eskailerak konpondu (2 miloi)
* Herrerako aparkaleku arazoa konpontzeko 2 miloi.

Hauetaz aparte Donostia osorako direnak baina Altzan eragina izango luketeenak:

* Jaietarako 12 miloi gehiago.
* Etxebizitzaren arazoari konponbidea emateko 1.400 miloi gehiago proposatzen aurrekontuetan azaltzen diren 600etara gehitzeko lursailak erosteko.
* Auzoetan gaztetxeak martxan jartzeko 75 miloi.
* Bidegorriak egiteko 75 miloi. Polloe-Garbera-Gros-Ategorrieta-Herrera-Bidebieta lotzeko.
* Bonobusaren inguruan azterketa egiteko eta lehenengo neurriak hartzen hasteko (gazteak, langabetuak...) 10 miloi.

**3.)Edukin ekonomiko gabeko proposamenak:**

* Asteartea Elkarteak aurkeztutako mozioen ondorioz, batzorde berezi bat martxan jartzea, non talde politikoa, Asteartea eta sindikatuek parte hartuko luketen, arlo honetan Udaletxetik har daitezkeen neurriak aztertu eta erabakiak hartzen hasteko.
* Jose Elosegi hiribiderako herri argiteriirako diru inbertsioa.
*Altzaren birgaikuntza landuko dituzten proiektuak jasotzeko ideia lehiaketa konbokatzea. Altzako hobekuntza burutzeko hainbat proposamen lortzeko asmoz, ondoren egokienak, egingo den plangintza batean kontutan hartzeko.

# GAZTEEK BONOBUS BEREZIA ALDARRIKATZEN DUTE

Altzako gazteak proposamen zehatz baten inguruan mobilizatzen hasi dira. Gazteon bizibaldintzak errepresio gogorrena dela diote, eta gauza txiki batetik hasi badira ere, ez du suposatzen garrantzi gutxikoa denik: gazte bonobus baten aldarrikapena.
Udaletxeak publikotzat jotzen duen garraiobide bat, autobusa alegia, gazteek duten baldintzetarako garestiegia dela diote. Kopuruei gain begirada bat emanez, Altzatar gazteek galdera bat luzatzen dute: ba al dago garraiobide hau publikoa dela pentsatzeko arrazoirik? Kopuru eta datu interesgarriak zabaltzen dituzte hurrengo lerroetan: "Prezio igoerak izugarriak dira; bidaia bakoitzak 63 pta balio ditu txartela erabiliz, eta 110 pta txartelik gabe. Azken urteetan prezioen gorakada nabarmena izan da: 45ptatik 50era, ondoren 55era eta iaz 62ra. Gaur jada 63 ptatan gaude. Beraz, azken 3 urteetan 18 pezetako igoera eman da, % 40a."

**Azken 3 urteetan autobus txartelaren salneurria %40ean igo da**

Bidaiak ez dituztela paseatzera joateko azpimarkatzen dute, lan egiteko edota ikasteko baizik. Adibidez ikasle bati egunean 2 bidaia egiteak astean 630 pta suposatzen dizkio, 2520 hilero eta 22680 urtero; eta hori txartela erabiliz, bestela kopuruak bikoiztu egiten dira. Lanean daudenei, berrzi, garestiago ateratzen omen zaio, normalean 4 bidaia egiten baitituzte. Beraz, atera kontuak eta urtean 55.440 pezetetara joango zarete (ia 100 mila txartelik gabe). Benetan datu interesgarriak dira, eta aparte geratzen dira hiriak eskaintzen dituen zerbitzuetara hurbiltzeko egiten diren bidaiak (udaletxea, INEM...) Altzako gazteek proposamen hau aurkeztu dute: urtean diru kopuru bat (12.000pta) 3 epetan ordaintzeko aukerarekin eta behar adina bidaia egiteko aukera eskaintzen duen bonobus berezia. Ikasleek ez dute diru iturririk eta lan egiten duten gazteek, gehienak lan baldintza kaxkarretan egiten dute lan eta euren soldatak ere ez die aukera handirik ematen.

**Gazte batek urtean 22.000 eta 55.000 pta tarteko gastua izan dezake autobusean**

## Altza iruditan

**En Altza hay una gran tradición como es la de cultivar la tierra. Pero el crecimiento de las huertas incontroladas, con sus txabolas y somieres necesita de una normativa rapidamente. Si no, el resultado es, tal y como se ve en la imagen, de paisajes de verguenza.**



**GAIA: EUSKARA**



## Ainara Vazquez (Altzako EHE)

# "Onartezina da Altzan A eredua mantentzen jarraitzen duten bi eskola izatea"

**-AE:¿Nola sortu zen EHE taldea Altzan?**

**-Ainara Vazquez:** Lehenengo saiakera duela bost bat urte edo egin zen, baina azkenik talde hura bertan behera geratu zen. Ondoren duela bi urte edo, otsailak aldera Altzan EHE talde baten beharra ikusi genuen eta Altzako komertzianteen euskara ezagupenari buruzko inkesta bat eginez lanean hasi ginen.Bi urte hauetan jende desberdina pasa da taldetik, egoitza desberdinak izan ditugu eta lan desberdinak ere burutu izan ditugu.

**A.E: Zein izan da azken bi urte hauetan burutu dituzuen lanak?**

**A.V:** Maila nazionalean EHE euskara mailan salaketa lan bat egin izan du, Eta Altzan ere horretan aritu gara, ezabaketak trafiko seinaletan...Baina bestelako dinamika ere eraman dugu. Hala nola iaz otsaila aldera "Altzan eta euskaraz" astea antolatu genuen, mahai inguruekin etab... eta irakaskuntza mailan ere lan egin dugu.

**-A.E: Zein da urte honetarako dituzuen asmoak?**

**-A.V:** Momentu honetan "Bai ofizialtasunari" kanpainan murgildurik gaude.Lelo honek gai desberdinak hartuko lituzke: justizia, Osakidetza, Administrazioa...Eta Altzan mailan aurten erronka handia dugu irakaskuntza arloan. Ikerketa bat egin da eta Donostialdean eta Bidasoaldean oraindik A eredua mantentzen duten eskolak daude, eta zoritxarrez, hauetako bi gure herrian bertan ditugu: Altzako Institutoa eta Eraikuntza eskola. Eskola hauekin kontaktuan jartzeko asmoa dugu eta iritzi trukaketa bat izan. Bestalde taldea sortu zenetik, jada beste hainbat herrietan martxan dauden Euskara talde baten antzekoa sortzeko asmoa genuen, euskara munduan lan egiten duten taldeekin koordinadora antzeko zerbait. Altzan arlo honetan mugitzen garen zenbait talde izanik koordinazio maila bat lortu beharko genuke, orain "Bai euskarari" kanpainan bezala aritzeko edo datorren hilabeteetan Korrikarekin.

**-A.E: Nola ikusten duzu euskararen egoera Altzan?**

**-A.V:** Zoritxarrez ezin dut erantzun positiborik eman. Gure herria nahikoa berezia bada, berezko ezaugarriak ditu, eta kontutan hartu behar dugu hainbat gunetan etorkinen kopurua oso handia dela. Hauetako askoren jarrera oso negatiboa da, denetarik entzun behar izan dugu. dena den ikustarazi behar zaie Euskal Herrian daudela, eta euskarak hemen bere lekua duela, baina ez dute beharrik sentitzen eta euskal kutsua duen edozeren kontra azaltzen dira. Adibideren bat emateagatik anbulategiaren kasua adibidez lotsagarria da. Euskaraz hiztegiten baduzu batzutan gaizki erantzuten dizute eta aldaketak egoten badira ere normalean ez dago mediku euskaldunik. Euskaldun bezala eskubide batzuk ditugu eta hainbat kasutan ez dira errespetatzen, eta euskaldunak garenak ere ez dugu behar bezalako presioa egiten. Altzan oso jende gutxik hitzegiten du euskaraz, eta helduen kasuan gero eta arraroagoa da.


**ALTZA EGINEZ ZURE ETXEAN**

Opinión, temas exclusivos de Altza, entrevistas... Rellena esta ficha y haznosla llegar a Txalaka. Recibirás la Revista de Altzako Herri Batasuna totalmente gratis.

TXALAKA ELKARTEA,LARRATXO 20 bajo

Tlf: 943.39.28.75

Nombre:..........................................

Apellidos:.......................................

Dirección:.......................................

.....................................................

Teléfono: .......................................

# PROPUESTA DE HERRI BATASUNA PARA LOS PRESUPUESTOS

La incidencia que los presupuestos preparados por el tripartito PSOE-PNV-EA pueda tener en Altza es prácticamente nula. Es por ello, que Herri Batasuna ha presentado numerosas enmiendas, muchas de ellas relacionadas a Altza. Al preparar unos presupuestos es fundamental conocer el punto de partida, y en el caso de los presupuestos municipales, el modelo de ciudad que quieren diseñar desde el tripartito y el modelo que defiende Herri Batasuna son bien diferentes. Herri Batasuna toma en cuenta esa parte de la ciudad que no sale en las postales, defiende la participación, defiende a los que tienen menos...En lo referente a Altza en estos presupuestos sólo nos encontramos con dos puntos: el frontón de Jolastokieta (1 millón) y en el área de juventud un programa para fomentar la intervención integral (10,4 millones). Aparte de estos puntos tan sólo los gastos para hacer frente a los equipamientos ya existentes: Casares, frontón de Herrera, Polideportivo... y también Lau haizeta y el comedor social de Altza. Salvo esto y dejando aparte los gastos generales (basuras, agua, policía municipal...) para Altza no hay nada más. Ante todo esto, Herri Batasuna ha presentado diferentes mociones, unas de procedimiento, otras de contenido económico, y otras de contenido no-económico.

| PROPOSICIONES DE PROCEDIMIENTO | PROPOSICIONES DE CONTENIDO ECONÓMICO | PROPOSICIONES DE CONTENIDO NO-ECONOMICO |
|---|---|---|
| Al comenzar el debate de los presupuestos, enviar el proyecto a las asociaciones de vecinos y demás grupos para que en un plazo determinado puedan hacer sus aportaciones. | 1. Reapertura de la guardería de Larratxo (26 millones)<br>2. Centro Cívico (3 millones)<br>3. Espacio para el ocio y el deporte en Arrobitxulo (5 millones más a los 20 presupuestados)<br>4. Piscina cubierta(100 millones)<br>5. Reparación de las escaleras en la Plaza San Luis (2 millones)<br>6. 2 millones para solucionar el problema de aparcamiento en Herrera.<br>7. 12 millones más para fiestas.<br>8. 1400 millones más a los 600 presupuestados para solucionar el problema de la vivienda.<br>9. 75 millones para gaztetxes en los barrios de Donostia.<br>10. 75 millones para bidegorris.<br>11. 10 millones para analizar el problema del bonobus joven, parados... | 1. Como consecuencia de la moción presentada por la Asociación de parados Asteartea, creación de una Junta especial junto a partidos y sindicatos para analizar las posibles medidas que el ayuntamiento pueda tomar.<br>2. Inversión para el alumbrado de la Avenida Jose Elosegi<br>3. Convocatoria de un concurso para recoger proyectos de mejora de Altza, para a continuación recoger los más adecuados en un proyecto. |

**PON ESTE CARTEL EN TU PORTAL PARA QUE OTROS LO PUEDAN LEER**